2015 MAI. 02
6134

| FA | 411 | 2015 |
|---|---|---|

Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuak honako foru agindua eman du:

2004ko apirilaren 7ko 3/04 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoak, 29. artikuluan hainbat zerga onura aurreikusten ditu Pertsona Fisikoen gaineko Zergan, Sozietateen gaineko Zergan eta Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergan mezenasgoko lehentasuneko jardueretarako jarritako zenbatekoentzako. Eta, 29. artikuluko lehenengo atalak dioenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekitaldi bakoitzean prestatuko du mezenasgoko lehentasuneko jardueren zerrenda, baita erakunde onuradunena ere eta jarduera horiek bete behar dituzten betekizun eta baldintzena.

2015. urterako zehaztasun horiek 2014ko abenduaren 9ko 43/2014 Foru Dekretuan jasota daude, eta hain zuzen, 2. artikuluko 1. atalean azaltzen ditu gizarte politiken esparruan lehentasunezko jarduera izendatutakoak.

Aipatutako dekretuaren 11. artikuluak xedatzen duenez, 2. artikuluan adierazitako jarduera edo programak garatzen dituzten pertsona edo entitateek idatziz aurkeztu behar dute Gizarte Politikako Departamentuan, 2015. urtea amaitu baino lehen, lehentasunezko jardueren artean sartzeko eskaera.

Gizarte Politikako Departamentuan, 2015eko maiatzaren 11n, sarrera eman zitzaion GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUAK egindako eskaerari, lehentasunezko aitorpenerako.

Eskaera gehitu daiteke 2014ko abenduaren 9ko 43/2014 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 1.

El diputado foral del Departamento de Política Social, ha dictado la siguiente orden foral:

La Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, en su artículo 29, contempla una serie de beneficios fiscales, en el Impuesto de la Renta de las Personas Físicas, en el Impuesto de Sociedades y en el Impuesto sobre la Renta de los No Residentes, para las cantidades destinadas a las denominadas actividades prioritarias de mecenazgo. El apartado 1 de dicho artículo 29 remite a la Diputación Foral de Gipuzkoa para el posible establecimiento, en cada ejercicio, de una relación de actividades prioritarias de mecenazgo, así como de las entidades beneficiarias y de los requisitos y condiciones que dichas actividades deben cumplir.

Para el año 2015, dichas determinaciones fueron recogidas en el Decreto Foral 43/2014, de 9 de diciembre, cuyo artículo 2, apartado 1 enumera las actividades que son declaradas prioritarias en el ámbito de las políticas sociales.

El artículo 11 del citado decreto dispone que las personas o entidades que realicen alguna o algunas de las actividades o programas indicados en el artículo 2 deberán presentar antes de finalizar el año 2015 una solicitud escrita de inclusión de la actividad prioritaria ante el Departamento de Política Social.

En el Departamento de Política Social, el 11 de mayo de 2015 tuvo entrada la solicitud del BANCO DE ALIMENTOS DE GIPUZKOA, para la declaración de actividad prioritaria.

La solicitud puede incluirse en el punto a) del apartado 1 del artículo 2 del Decreto Foral

atalaren a) puntuan eta, beraz, jarduera lehentasunezkotzat hartzen da.

Horren arabera,

**XEDATZEN DUT**

**LEHENENGO.-** Onartzea GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUAK egindako eskaera, eta lehentasunezkotzat aitortzea, 2015. urterako, Gipuzkoan gizarte zerbitzuen arloan egindako programak eta jarduerak.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek Foru Agindu honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkez diezaiokete foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

43/2014, de 9 de diciembre, por lo que procede la declaración de actividad prioritaria.

En su virtud,

**DISPONGO**

**PRIMERO.-** Aceptar la solicitud del BANCO DE ALIMENTOS DE GIPUZKOA y declarar prioritarios para el año 2015 los programas y actividades desarrollados en Gipuzkoa en el área de los servicios sociales.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, los particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Diputado Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime pertinente.

Donostia, 2015 [illegible] San Sebastián,

Idazkari teknikoaa / La Secretaria técnica

Sin./Fdo.: Mª Socorro Equiza Equiza

BANCO DE ALIMENTOS DE GIPUZKOA / GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA